

**BERMEOKO UDALEKO TELEKOMUNIKAZIO ZERBITZUA KONTRATATZEKO  
BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIA.****1.- KONTRATUAREN HELBURUA**

Bermeoko Udalari telekomunikazio zerbitzua ematea da kontratu honen helburu edo xedea. Zerbitzu honen barruan sartuko dira oinarritzko telefonia, telefonia mugikorra, telefonia mota bien uztarketa, internetera sarbidea, mezu laburren (MLZ) zerbitzua, terminal mugikorretatik multimedia mezuak (MMZ) eta lineen, terminal mugikorren, telefonogunearen eta ematen den zerbitzuari lotutako tresneriaren mantentzelanak.

Kontratu honek osorik hartzen ditu zerbitzu mota biak eta beraz euron erakunde esleipenduna I eta II. Eranskinetako kokapenetan prestazioa osorik ematera derrigortuz.

Telefonia mugikorra gero eta hedatuagoa dagoenez eta sare finkoarekin gero eta uztartuago, telefonia mota bien uztarketa eskatu da lehiaketan, batez ere, tarifa aldetik begiratuta.

Terminal mugikorren eta emandako zerbitzuei lotutako telefonogunearen mantentze lana bete beharko du adjudikaziodunak, baita telefono lineena eta esleipen honen barruan sartzen diren terminal eta udal dependenzia ere. Arduratu beharko da baita,

I. Eranskinean agertzen diren eraikinetan zuntz optiko bitartez elkartzen den sarea mantentzeaz.

Goian aipatutako zerbitzu bakoitzari buruzko zertzeladak emango dira orri hauetan, zehatzago eta zabalago.

**2.- KONTRATATZEKO BALDINTZA OROKORRAK**

Esleipendunaren ardura izango da instalazioa ondo egitea eta horniduren funtzionamendu ona, UIT (ITU), CCIR arauekin eta baldintza-agiri honetako eskakizun zehatzen arabera.

Garraioa zein doikuntzarako, instalaziorako, neurtzea ekipoetarako, aseguruetarako... behar den material guztia kontratistaren kontura izango dira. Horrela, azken instalazio zuzena egiteko, martxan ipintzeko eta onarpen probetarako behar diren zerbitzuak, materialak eta ekipoak eduki beharko dituzte eskaintza guztiek.

Era berean, eta orri honetako dagokion atalean esaten den moduan, kontratistak hobe kuntzaren bat jasoko balu eskaintzan, horren betekizuna bere kontura joango litzateke.

**2.1. Hornidura eta instalazioa.**

Hornidura eta instalazio baldintzak honako hauek izango dira:

**2.1.1. Lanen koordinazio eta kokapena**

- Lehiaketa honetako materialaren hornidura Bermeoko Udalak adierazitako lekuetan egingo da.



- ❑ Bermeoko Udaleko teknikari arduradunak zentroetan sartzeko baimena emango diete esleipena duen enpresako beharginei.
- ❑ Baldintza teknikoaren orri honetan eta lanak hasi aurretik Bermeoko Udalaren ordezkari baten eta adjudikaziodunak aukeratzeko duen langilearen artean egin beharreko zuinketan adierazitakoa betez burutuko dira instalazioak eta gainerako lan guztiak.
- ❑ Bermeoko Udalak, dagokion jakinarazpenaren bidez, lanen hasiera adieraziko du, kontratistak hornidura egin dezan,

### 2.1.2. Barruko kableak jartzea

- ❑ Ekipoak eta kableak Bermeoko Udalaren eta esleipendunaren artean aurretiaz egin beharreko zuinketan adierazitako lekuetan instalatuko dira.
- ❑ Erabiliko diren kable guztiak ondo eutsita egon beharko dira, erretilu metalikoekin, rejillekin edo hormetako edo ekipoen gainean ipiniriko kanaleten bidez, inola ere ez da onartuko lurrazaren gainean jarritako kablerik. Kableak ondo identifikatuta egon behar dira.
- ❑ Beharrak segurtasuneko eta higieneko oinarritzko arauak kontuan hartuta egingo dira, eta instalazioak, gutxienez, topatu ziran momentuan zeuden garbitasun egoera bereberetan utzi beharko dira.

### 2.1.3. Kutxa terminalen panelazioa eta kokapena

- ❑ Bermeoko Udalak zehazki hori agindu duelako izan ezik, **banatzaileak eta ekipamendu aktiboa**, udalak, bere eraikin bakoitzean dauzkan komunikazioetarako arasetan jarri beharko dituzte.
- ❑ **Elkar konektatzeko kaxek, terminalek edo sarearen bukaera puntuek**, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:
  - Gaur egun martxan dagoen operadoreak elementu hauek izanez gero, elkar konektatzeko puntu berri horiek daudenen ondoan jarri beharko dira.
  - Terminalen kaxa bat baino gehiago egonez gero, guztiak bildu beharko lirateke elementu anizkoitzetan.

Adjudikaziodunaren sare-amaiera elementu guztiek izango dituzte beraien ebakitze eta proba puntuak. Ez baleude, adjudikaziodunaren kontura izango litzateke linea jartzea lehenen daukan terminal-kaxaraino edo dagokion telefonogunearaino.

## 2.2. Baliabideak.

Eskaintako hornidura guztiak instalatzeko beharrezkoak liratekeen tresna, aparatu, neurtzeko ekipo, segurtasun material, ibilgailu, langileria aditu eta baita prestakuntza eta eskarmentu nahikoa izango du kontratistak.

## 2.3. Esleipendunaren jardueraren gainbegiratzea

Bermeoko Udaleko teknikariek zuzenduko dute lana. Eurak izango dira adjudikaziodunak hitzartutako konpromiso guztiak era egokian betetzen direla gainbegiratuko dutenak eta lanak koordinatuko dituztenak, bai aritze aldetik eta baita tekniko aldetik ere. Aldi berean, kontratistak arduradun bat aukeratu du bere enpresa barruan. Bermeoko Udaleko teknikari arduradunak eskuduntzarik zabalena edukiko ditu, eta haren aginduak eta jarraibideak berehala bete beharko dira.

Bermeoko Udalak kontrolerako ezartzen dituen baldintzak guztiak derrigor bete beharko ditu esleipendunak.



Zerbitzuen garapenari buruz sortzen diren desadostasunak ordezkari mailarik gorenenean ebazteko dira. Bermeoko Udalak, edozein momentutan (esleipena egin baino arinago edo ostean, zein beharrak egiten diren bitartean) bestelako edozein agiri osagarri eskatzeko ahalmena izango du. Agiri horiek enpresa esleipendunak aurkeztu dituen datuak egiaztatzeko izango dira, bai enpresari berari buruzkoak, bai enpresak proposatutako beharginei buruzkoak.

#### **2.4. Segurtasuna eta osasuna**

Enpresa esleipendunak **Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana** eduki beharko du (abenduaren 12ko 54/2003 Legeak aldatu zuen Laneko Arriskuen Prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 Legeko 16. artikulua).

Enpresa esleipendunak azaroaren 8ko 31/1995 Legean aurreikusitako prebentziorako betebeharrak orokorra osatzen duten neurriak ezarri beharko ditu, prebentzio ekintzaren printzipio orokorren arabera.

Laneko Arriskuen Prebentziorako Legeko 24. artikulua xedatzen duen bezala, enpresaburu nagusiak beraren jarduerari dagozkion eta beraren beharlekuan egiten diren obretako edota zerbitzuetako enpresa kontratistek eta azpi-kontratistek prebentzio arautegia betetzen dutela zaintzeko betebeharra dauka.

Enpresa esleipendunak, beraz, urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuko 10.2 artikuluan ezarritako neurriak aplikatu beharko ditu. Hauxe dio ikuskatzeko betebeharraren inguruan "Beharlekuan jarduera hasi baino arinago, kontratatutako obretarako eta zerbitzuetarako arriskuen ebaluazioa eta prebentzio jardueraren planifikazioa egin dutela idatziz egiaztatzeko eskatuko die enpresaburu nagusiak kontratistei eta azpi-kontratistei". Eta 10.2 artikulua bigarren paragrafoak hauxe ezartzen du: *"era berean, beharlekuan behar egingo duten pertsonen informazioa eta heziketa emateko daukaten obligazioa bete dutela idatziz egiaztatzen diren enpresaburuak enpresa horiei"*.

Enpresa esleipendunak, zerbitzua hasi baino arinago, beharlekuan lan egingo duten beharginen zerrenda aurkeztuko du, eta enpresa esleipenduneko prebentzio arduraduna ere izendatuko du.

Edozein kasutan ere, baldintza agiri administratiboetako I. eranskinean jasotako dokumentazioa aurkeztu beharko du.

#### **2.5. Sekretua eta konfidentzialtasuna.**

Kontratistaren beharginek Bermeoko Udalak ezarritako konfidentzialtasun arauak eta bere zentroetara sartzeko kontrol arauak zeintzuk diren jakin eta errespetatu egin beharko ditu.

Kontratistak, era berean, kontratuaren ondorioz esku artean erabiliko dituen **Copyrightari, jabetza intelektualari eta sailkatutako dokumentazioari edo hedapen murriztutako dokumentazioari** buruzko indarreko arauak bete beharko ditu.

Kontratuak horretarako aukera ematen diolako, ezagutzen dituen datuen konfidentzialtasun osoa gordetzera behartuta geratuko da adjudikazioduna, batez ere, datu pertsonalak direnean. Honako lege, dekretu eta erregelamenduek xedatutakoa ere bete beharko du nahita nahiez:

- Abenduaren 13ko 15/1999 **Datu Pertsonalen Babesari buruzko Lege Organikoa.**
- 2/2004 **Euskal Legea**, otsailaren 25ekoa, **Datu Pertsonalen Fitzategiei** eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoa.



- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Erregelamendua (Abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua).
- Uztailaren 11ko **34/2002 Legea**, Informazio Gizartearen eta Merkataritza Elektronikoen Zerbitzuei buruzkoa.

## **2.6. Dokumentazioa.**

Hemen deskribatutako dokumentazioaren kopia oso bi eman beharko dizkio hornitzaileak Bermeoko Udalari.

Kopia osotzat hartzen da, karpeta barruan paperean eta Office 2007arekin bat datorren euskarri informatikoan dagoena.

Kontratistaren hartu-eman guztiak, administrazioarekin zein erabiltzaileekin, euskaraz egingo dira. Era berean, bide publikoan zein udal eraikinetan ipini beharreko seinaleak, kartelak edo antzekoak euskaraz izan beharko dira.

Edozein kasutan, zorrotz bete beharko da Euskerearen Normalkuntzarako udal Ordenantzea.

### **2.6.1. Dokumentazioa mantentzea**

Bermeoko Udalak instalazioei, ekipoei, moduluei eta elementu osagarriei buruz daukan dokumentazio tekniko guztia emango du.

Adjudikaziodunak dokumentazio hori ondo gordeta eta erabilera egoera egokian izan beharko du. Emandako dokumentazio hori Bermeoko Udalaren jabetzakoa izango da.

Eskuragarri dagoen dokumentazioa ez bada nahikoa, esleipendunaren ardura izango da beraren zereginak bete ahal izateko behar duen eta Bermeoko Udalak ez daukan dokumentazioa lortzea.

Esleipendunak erregistro bat ezarriko du planoetarako, eskuliburuetarako eta eskura daukan zerbitzuen eta instalazioen agirietarako, eta eguneratuta edukiko du.

Konponketa edo ordezkatzeko baten ondorioz, emandako dokumentazio teknikoak ez balu ekipoen benetako egoera islatuko, esleipendunak behar diren dokumentuak eguneratzeko beharrezana edukiko du, izan ere, dokumentazio teknikoa uneoro etorri behar da bat egoerarekin.

Kontratua amaitzean, esleipendunak dokumentazio guztia itzuli beharko deus Bermeoko Udalari, bai orijinala bai eguneratutakoa.

## **2.Langileen hizkuntza gaitasuna**

Lan lekuan zerbitzua emango duen langile orok (materiala hornituko dutenek zein instalazioak eta jarduerak abian jartzeko ardura dutenek zein terminal mugikor eta zentralitaren mantenua egiteko ardura dutenek) esleipen honen xedea den lana euskaraz egiteko gaitasuna izan beharko du, ahoz zein idatziz.

## **3. KONTRATUAREN HEDADURA**

Eginbeharreko lanekin bete behar diren eskakizun, baldintza teknikoak eta berauen hedadura jasoko dira atal honetan.



### 3.1. Telefonía finkoaren zerbitzua

Bermeoko Udalean dagoen telefonía finkoaren zerbitzua, zentralizatutako IP telefonía sistema bat da, Alcatel OmniPCX Enterprise telefonogune bakarrak eta 30 kanaldun primario batek kudeatutakoa. Sistema hau, alde batetik, Ertzilla kaleko 6-8 eraikinean zentralizatuta dagoen modu bakarrek zuntz optiko sare baten gainean inplementatuta dago eta I. Eranskinean azaltzen diren zentroak elkartzen ditu. Beste aldetik, VPN (NetLan) bidea dauka II. Eranskinean agertzen diren zentroak elkartzeko. Hurrengo ataletan zehazten dira linea finkoetako kontratuaren hedaduraren oinarria izango diren ezaugarriak.

Esleipendunak dagoen zerbitzua bermatu beharko du da gutxienez 30 kanal sare publikora ateraz eta udaleko zuntz optikoko sarera lotu gabe dauden eraikinekin elkarlotuz. (II. ERANSKINA)

#### 3.1.1. Zerbitzuen dimentsioa eta izaera

Ondorengo taulan kokapen bakoitzean gaur egun kontratatuta dauden kanalak zehazten dira. Eskaintzen diren zerbitzuen dimentsio egokia erakustea da taula honen helburua. Plegu hauetan onartu nahi da, hemen azaldutako ahalmenak gaur egungo beharrezanez dagozkiela eta etorkizunean zabal daitezkeela.

Dauden lotuneen kokapena, kopurua eta izaera adierazten da taula honetan:

Eraikina	Izaera eta lotune kopurua	Dimentsioak
ATB Saila eta Berh@z	Linea primario bat 30 kanal analogikorekin	Sarrera horrek udaleko telefono finkoko egitura osoari ematen dio zerbitzua. 9 IP luzapen eta 4059 operadore kotsola bi.
Ekonomia, Urigintza, Zerbitzu eta Udaltzaingoa sailak	5 linea analogiko + 4 linea RDSI (092 zerbitzua)	25 IP luzapen
Gizarte Ongizatea	Linea analogiko 1	16 IP luzapen
Udal azoka, artxiboa, Behargintza eta Udal aparkalekua	3 linea analogiko	11 IP luzapen
Joxe Miel Barandiaran udal liburutegia	3 linea analogiko	7 IP luzapen
Kultur Etxea	3 linea analogiko	26 IP luzapen
Jose Antonio Egia musika eskola	Linea analogiko 1	2 IP luzapen
Beruala	2 linea analogiko	8 IP luzapen
Lanbide Hastapena eta Herri Babesa	2 linea analogiko	2 IP luzapen
Landabaso biltegia		1 IP luzapen
Sancti Spiritus zaharren egoitza	4 linea analogiko	13 IP luzapen
Kirol patronatua	3 linea analogiko	6 IP luzapen
Bake Epaitegia	Linea analogiko 1	5 IP luzapen



S. Frantzisko h.eskolak	Linea analogiko 1	
Villa Eustasia		
Erreten lamera		
Haur eskola	Linea analogiko 1	
Euskaigunea	Linea analogiko 1	
Aritzatxuko hondartza	Linea analogiko 1	
Nestor Basterretxea aretoa	Linea analogiko 1	
Kurtzioko igogailua	Linea analogiko 1	
Taxi geltokia	Linea analogiko 1	
Artza frontoia	Linea analogiko 1	
Kabidxe	Linea analogiko 1	
Udaltzainburua		

Taula hau ez da loteslea, orientagarria baizik eta gutxieneko ahalmen batzuk finkatzen ditu.

### 3.1.2. Zenbakien barrutia eta berariazko baldintzak

3.1.1. ataleko taulan agertzen diren eraikin guztietan, bete beharreko gutxieneko baldintza modura gordeko dira gaur egun dauden zenbakiak. Eskaintza dimentsionatu eta baloratzeko asmoarekin funtzionamenduan dauden telefono zenbakien kopuru osoa azaltzen da eta kokapen hauetarako gordeta daudenak:

- 94 617 9100tik 9199ra eta 94 617 0200 barrutiko 101 telefono zenbaki.
- 010 eta 092 zerbitzuak
- Barrutitik kanpoko 46 telefono zenbaki

Zenbaki hauek sare publikora ateratzen diren 30 kanalei lotuta dago, eta baita zerbitzua ematen den kokapen guztien artean banatutako linea analogikoei ere I eta II. ERANSKINAK.

### 3.2. Telefonía mugikorreko zerbitzua.

Gaur egun Bermeoko Udalak 66 linea mugikor ditu, baina kontuan hartu beharko da gero eta linea mugikor gehiago izatearen joera.

Linea mugikor hauei dagokien terminaletatik 20 goi mailakoak dira (iPhone, Samsung S4 eta antzekoak) eta gainontzekoak maila baxuagokoak dira (Samsung Galaxy Core, Samsung Galaxy Ace, Huawei Y5, Aquaris E5 eta antzekoak).

Multimedia mezuak eta erabiltzaile batzuen internet erabilera eta baita dei zehatz batzuk egitea murrizteko mekanismo bat izan beharko dute (erabiltzaile horren zenbakiaren arabera murrizketa)

Eskaintako telefonía mugikorraren sistemako ezaugarri nagusi, orokor eta globalak erantsi beharko dira; egonez gero edo eskatzen badira, telefonía finakoarekin bat egiteko elementuak edo, finkotik mugikorrerako deien kostea gutxitzeko ahalmena erakutsirik.

Udalaren interesagatik zerbitzu bereziak izan behar dituzten mugikorretan zerbitzu horiek gaituko egingo dira (mezu laburrak bidaltzeko zerbitzua, GPRS zerbitzua, interneta, posta elektronikoa, eta abar).



Posible denean, udalak eskatutako terminalek euskaraz konfiguratzeko aukera izango dute; beraz, esleipendunak Bermeoko Udalaren esku jarriko ditu hizkuntzaren alorrean euskara ere baduten terminalak. Horrelakorik ezean, euskara ez edukitzearen hutsunea beteko lukeen programa edo aplikazioren bat balego merkatuan, terminalak programa edo aplikazio horiek ezarrita emango liriateke, beti ere bideragarria balitz.

Era berean, aurreikusten duen idazketari dagokionean, eskatutako terminalen teklatuak euskararako aukera izango du.

### 3.3. Banda zabaleko interneterako sarbideak

Gaur egun Bermeoko Udalak interneterako 17 sarbide ditu, ezaugarri eta erabilera desberdindunekoak. Aipatu egin behar da hauetarik 3k Sare Pribatu Birtuala (NetLan) osatzen dutela eta udalaren telefonia finkoaren zati bat horren gainean implementatuta dago. Udalak kontratatu beharreko gutxieneko konexioen ezaugarriak jarrian zehazten dira.

Sarbide kopuruak	Sarbideen ezaugarriak	Ematen dituen zerbitzuak
1	6 Mbko simetrikoa	Web eta intranet zerbitzarirako sarbidea
1	IP finkoko 150 Mb-ko banda zabala	Zuntz optiko sarerako datuen zerbitzua (150 erabiltzaile)
1	Sare Pribatu Birtuala (RPV) 3 eraikin konektatzeko. Egoitza nagusia Ertzilla 6 eraikinean	Udalaren IP telefonia sarean 3 eraikin sartzea
2	RPVra konektatutako eraikinetan 50 Mb-ko banda zabala	RPVn sartutako eraikinetan datu zerbitzua
3	IP finkoko 150 Mb-ko banda zabala	Udalaren sarera urruneko sarbidea duen banda zabala
9	50 Mb-ko banda zabala	Hainbat zerbitzutarako banda zabala

### 3.4. Mantentze zerbitzua

Mantentze zerbitzuak oinarrizkoak diren baldintza batzuk bete beharko ditu:

- Matxurak konpontzeko ordutegia: Astelehenetik igandera, gutxieneko ordutegia 24 orduetan, 24x7 zerbitzua. Erantzuteko denbora ezin izango da 4 orduetik gorakoa izan.
- Gorabeheretarako, berdin dio zein motatakoak diren, solaskide bakarra egongo da, beti ere kontratu honen barruan badaude eta gutxienez telefonoz, e-postaz eta webgune bidez emateko aukerarekin.

Eskainitako mantentze zerbitzuak ondoko elementu hauek bete beharko ditu:

- Telefonia mugikorrean eskainitako parkea: Adjudikaziodunak eskainitako telefonia mugikor parke osoa hartuko du. Terminal mugikorra ordezkatzeko gabezia epea 48 ordukoa izango da eta matxuratutako, lapurtutako edota galdutako terminalak konpondu edo euren ordezkari beste batzuk jartzea estaliko du, baita matxuratutako edo lapurtutako SIM txartelak ordezkatu edo/eta bikoiztea ere. Era berean, SIMak blokeatzeko zerbitzua ere izan beharko du, Bermeoko Udalak horrela eskatzen badio lapurreta edo galtze kasuetan.



- Esleipendunak eskaintako komunikazio linea eta esteka guztiak mantenduko ditu.
- Internetera sartzeak eragindako gorabehera guztiak kudeatzea eta sarbide kodeak kudeatzeko aukera.
- Udaltzaingoa jarritako Gateway Mediaren Alcatel OmniPCX Enterprise (OXE 9.1) telefonogunearen hardware eta softwarea bertan eta urrundik mantentzea. Berdin, Alcatel OmniSwitch 6800/24 eta OmniStack 6300/24, eta 6500/24 sarearen elektronika guztia, baita, zentroetan jarrita dauden Alcatel IPTouch 4018aren 150 terminalak. Aipatutako elementuen ezaugarriak jarraian zehaztuko dira:

Marka, modeloa eta softwarea	Kokapena	Ezaugarri teknikoak
1 Alcatel OmniPCX Enterprise (OXE 9.1)	ATB SAILA ETA BERHAZ BULEGOA Ertzilla kalea 6-8	Sarbide primario , oinarrizko 4 sarbide RDSI, 8 sarbide analogiko, 16 luzapen analogiko, 150 lizentzia IP terminaletarako, bi operadore kontsola 4059 eta 4645 ahots-mezuak. Omnivista 4760 Kudeaketa-tarifatze programa dauka.
1 Media Gateway	Udaltzaingoa Intxausti 2	4 oinarrizko RDSI sarbide eta 4 kanp. digitalak.
150 Alcatel IP Touch 4018	IP telefonia sarean sartutako eraikin guztietan.	
1 OnmiSwitch 6824 4 OnmiSwitch 6400 8 OnmiStack 6300	IP telefonia sarean sartutako eraikin guztietan.	Udalerrian zabalduko multimodo zuntz optikoko sarea osatzen duen sareko elektronikoa.

Era berean zerbitzuko ohiko lanekin lotutako konfigurazio- aldaketak ere estaliko ditu.

### 3.5. Zerbitzu osagarriak

Esleipendunak, plegu hauetan jasotako zerbitzuez gain, ondokoak eskaini beharko ditu:

#### 3.5.1. Cloud zerbitzuak. Urrutiko Back up-a

Esleipendun enpresak, LOPD beteta ziurtasuna eta informazioa modu ziurrean kudeatzea bermatuko duen Cloud zerbitzuak eman beharko ditu. Horrela ba, zerbitzarien “backup”a eta udalaren datuak ostatzeko biltegitratze zerbitzua izango du, gutxienez 2 TBko edukiera izango duena.

1,3 TBtako edukiera izango duen hasierako “backup” osoa egingo da eta hortik aurrera 120 GB inguru izango duen asteroko “backup” bereizgarriak egingo dira.

#### 3.5.2. Kudeatutako firewall-a





Gaur egungo araudiak betez eguneratutako eta egokia den firewall zerbitzua, egoitza nagusia Ertzilla 6–8n duen zuntz optikoko sarearen datuen zerbitzurako kudeatuta.

Zerbitzua ematen duenak kudeatzen du firewall-a, baina udalak izendatutako langileek administratuko dute oso osorik eta bere beharrianetara konfiguratzen aukera izango du (erregelak, portuak, VPN, edukien kudeaketa, eta abar...).

### 3.6. Eskaini beharreko zerbitzuaren hobekuntzak

Eskaintzaileek pleguei hobekuntza desberdinak egin ahal izango dizkiete eta eskaintako prezioak igoerarik gabe emango lirarteke. Ondoko arloak bereziki baloratuko dira:

- Cloud plataformen bitartez, Office 365 edo antzekoak, ekoizpena, komunikazioa eta elkarlana hobetzeko helburua duten zerbitzuak.
- Switchak, PCak, ekipamendu informatikoak eta terminal mugikorrek hornitzea eta/edo berritzea komunikazioen hornitzaileak. Esleipenerako eskaintza egiten den unean dauden ekipoei buruzko hobekuntza zehatza bereziki baloratuko da, gaur egungo egoeraren benetako azterketa batetik eratorritakoa dena.

Era berean, atal honetan enpresak etorkizunerako egingo dituen planteamendu desberdinak jaso ahal izango dira, aipatutako berriztatzearekin zerikusia dutenak eta kontratuak dirauen artean egingo lirarteke.

- Wifi ziurren irtenbideak sustatzea, udal barruko eta kanpoko edo kortesiazko langileak banatuz, edukien kudeaketa eta izaera desberdina duten udal informazioa transmititzeko aukerarekin, Bermeoko Udalaren irizpideen arabera. Guzti hau, Bermeoko Udalak izendatutako langileentzako eskuragarria den kontrol panel baten bidezko kudeaketa zuzenaren bidez egingo da.
- Operadore mailan, zentralitako deietako kudeaketa orokorrean egindako hobekuntzak; hau da, zentralitako bertako zerbitzuekin erlazioa duten hobekuntzak, esaterako, egindako, jasotako, ... deien memoria eta hizkuntza irizpideen arloan adierazitako irizpideak, hau da euskarari lehentasuna.
- Gorabeherarik balego komunikazioen eraginkortasuna ziurtatzeko zerbitzuak, esaterako VPNren 3G babesak egotea eta Ahots finkoko komunikazioetarako.
- Gailu mugikorrek urrunetik kudeatzeko aukera, gailu horretatik sar daitekeen zerbitzu desberdinak baimendu, mugatu eta kudeatu ahal izanda.

## 4. BALDINTZA TEKNIKO OROKORRAK

Kontratu honen xede diren ezaugarri tekniko orokorrak azaltzen dira ondoren. Ezaugarri hauek derrigorrez bete beharrekoak izango dira adjudikaziodunentzat.

### 4.1. Beharrezkoak diren egokitzapenak kudeatzea

Sistema lehen aipaturiko eskakizunen arabera egokitzeko, lizitatuak hornitzen duen ekipamenduan egin behar dituen garapen edo moldaketa guztiak prezioen barruan adieraziko dira, hala nola, oinarrizko hornikuntzaren instalazio epea eta beste.



Sistema behar den moduan ibil dadin software osagarria kargatu beharko balitz, eskaintzaileak eskuratu eta instalatuko ditu behar diren programak, baita programok erabiltzeko behar beste baimen ere.

#### **4.2. Solaskidetza puntu bakarra**

Lizitatzailerek aurkeztutako eskaintzetarako ezinbesteko baldintza modura ezartzen da solaskidetzarako puntu bakarra izatea Bermeoko Udalaren eta adjudikaziodunaren artean, arlo tekniko eta merkataritzakoentzat.

Solaskidetza tekniko bat egongo dela ulertzen da (mantentze lanak, instalazioak, intzidentziak...) eta beste solaskidetza bat merkataritza gaietarako (zerbitzuak kontratatzea, fakturazioak, sustapenak...).

#### **4.3. Gaur egungo zenbakiak mantentzea**

Lehiaketa honen barruan sartzen diren eraikinetan, eta baita telefonia mugikorrean ere gaur egun dauden zenbakiak mantendu nahi dituzenez euren osotasunean Bermeoko Udalak, eta beharrezkoa balitz eramangarritasuna erabiltzea, **maiatzaren 9ko Telekomunikazioen 9/2014 Lege Orokorrak** ezartzen duena eduki beharko da kontuan, baita lege hori garatzen duen indarreko legedia, eta **TMBk** (Telekomunikazioen Merkatuko Batzordea) hartutako erabakiak eta adierazitako gomendioak.

Adjudikaziodunak idatziz agertuko du bere konpromisoa gordeko duela eta Bermeoko Udalaren esku utzi "Telefono zenbakiaren eramangarritasuna" zerbitzua, honako araudi hauetan ezarritako baldintzetan.

#### **4.4. Zerbitzuaren kalitatea**

Kontratatistak, lizitazioaren atal modura aurkeztuko ditu izaera loteslearekin, zerbitzuaren kalitateari buruz eskainitako baldintzak. Faktore hauetan islatuko da bereziki:

- Kontratatutako zerbitzuak erabilgarri ez dauden epe portzentajerik handiena urte barruan (lineak, telefono zirkuituak eta internetera sarbideak).
- 
- Urte barruan zerbitzuan programatu gabeko ebaketa kopururik handiena,
- Urte barruan onartuta dauden programatutako ebaketa kopururik handian ezarri beharko da.
- 

Era berean, bere fakturazioan aplikagarriak liratekeen zigorrak, zerbitzuaren fakturazioan izango lukeen portzentaje modura adieraziz, zerbitzurik eman ezin den bakoitzeko urteko portzentajezko hamarrena, programatu eta ez programatutako ebaketa kopurua.

#### **4.5. Inbertsioa mantentzea eta telefonia finkoan gaur dagoen sarearen funtzionaltasuna**

Bermeoko Udalak izar erako sare bat dauka zuntz optikoarekin eraikin hauek elkartzen dituen: Udaletxea, Intxaustiko bulegoetako eraikina, Gizarte Ongizateko Patronatua, BERUALA, musika eskola, udal liburutegia, udal azoka, Gizarte eta kultura etxea, Berh@z, kiroldegia, Lanbide Hastapena eta Sancti Spiritus zaharren egoitza.



Era berean, baldintza agiri hauetako 3.1.1. atalean adierazitako gainontzeko linea analogikoen funtzionalitate zuzena zaindu beharko da.

#### **4.6. Aurrezenbakiak markatu beharreko telekomunikazio zerbitzuen erabilera**

Telekomunikazioen merkatuko gaur egungo egoerak kontuan izanda, eta operadoreetan aurre-aukeratze prozesuak normaldu eta gero, kontratu honen xede diren zerbitzuetara iristeko azken erabiltzaileak aurrezenbakiak eskuz markatu beharreko irtenbideei zaharkituak irizten zaie, baita kanpoko bideratzaileak erabiltzen dituztenak ere.

Beraz, azken erabiltzaileak aurrezenbakirik markatu beharrik ez izatea eskatzen da.

### **5. ESKAINTZA EKONOMIKOA**

Eskaintza ekonomikoak izan behar dituen ezaugarriak azaltzen dira atal honetan.5.1. Prezioen azalpena

- Lizitzaileek derrigorrez adierazi beharko dute beraien eskaintza ekonomikoan baloraziorako irizpideen atalean ezarritako prezio zein diru-kopuruak. Atal horretan tabulatutako elementuei dagozkien unitateko prezioak ere agertu beharko dira: Unitate prezio hauek ez jartzeko salbuespen bakarra zerbitzua zaharkituta egotea izan daiteke eta haren ordeztu beste bat jarri beharra. Kasu honetan zerbitzu, mantentze zein ordeztuaren altaren unitate-kopurua aplikatuko litzateke.
- Eskaintza ekonomikoan sartzen ez diren unitateko zenbateko guztiak, balorazio irizpideetan sartzekoak direnean, 0 puntu hartuko dute dagokien baloratzeko atal edo azpiatalean.

#### **5.2. Prezioen iraupena**

Kontratuak dirauen bitartean ez dira prezioak berrikusiko, Baldintza Administratiboetako Pleguetako 6. puntuan jasotzen den moduan.

### **6. FAKTURAZIOA**

Fakturazioa hileroko egingo da eta hilabetea amaituta gero. Faktura bakarra aurkeztuko da.

Bermeoko Udalera paper euskarrian bidalitako fakturaz egingo da fakturazioa, nahiz eta Internet bidez kontsultatzeko aukera ere egotea eskatzen den. Linea bidezko sarrera hori behar diren neurriekin babestuta egongo da, konfidentziasuna segurtatuta egon dadin.

Era beran, Internetetik ere ateratzeko aukera izan beharko du fakturazio horrek edo euskarri informatikoan bidaliko da, mugatutako testudun fitxategiekin bateragarria den formatuan. Fakturazioa kontsultatzeko softwarea izanez gero, adierazi egin beharko da, lehenengo bidalketan behintzat, eta idatziz, bidalitako taulen eremuen egitura zein den eta euren erlazio logikoa, horrela, Bermeoko Udalak automatizatu ahal izateko informazio horren inportazioa.

Bermeoko Udalerako egiten den paperezko euskarriko faktura zein euskarri informatikokoa eta baita 6.1. atalean aipatutako xehetasunak ere, euskaraz idatzita egingo dira.



### **6.1. Fakturazioaren xehetasunak.**

Plegu hauetan ezartzen den moduan, telekomunikazioarekin zerikusia duten gastu guztiak bilduko dituen hileroko diru kopuru bat finkatuko bada ere, fakturazioa zehaztua izango da, jarraian azalduko dugun moduan.

Fakturazioan argi adieraziko da trafiko telefonikoa, terminal finko zein mugikorretatik egindako dei guztiak agertuko dira eta faktura orokorraren barruan sartuko da lineaka zehaztuta.

SMS mezu laburren zehaztasunak eta baita MMS mezuen zehaztasunak ere, faktura orokorraren barruan sartuko dira baina desberdindutako atal baten, non linea bakoitzeko mezuen zehaztapena egingo den.

Terminal mugikorretako datuen trafikoen fakturazioa (GSM/GPRS/EDGE/UMTS/HSDPA/HSUPA/HSPA+/3G/4G/LTE...), faktura orokorrean sartuko da, baina atal berezi batean, non linea bakoitzeko Kilobyten trafikoaren bolumena zehaztuko den. Dena den, fakturazio erak, beronen xehetasuna eta beronek biltzen dituen datu, trafiko eta abarrek Bermeoko Udalaren hasierako onespena jaso beharko du, udalak onartu arte beharrezkoak liratekeen fakturazio eredu ezberdinak proposatuz kontratistak, beti ere, ahalik eta zehatzenak eta gardenenak izaten ahaleginduz.

### **7. LIZITAZIO MOTA**

Kontratu honen lizitazio mota **198.000,00 €koa** da eta urteko zenbatekorik handiena **49.500,00 €** da.

BEZari dagokion zenbatekoa 41.580,00 €koa da eta zenbateko osoa, zergak barne 239.580,00 €koa.

### **8. KONTRATUAREN INDARRALDIA**

Kontratuak urte biko indarraldia edukiko du, zerbitzua martxan jartzen denetik hasita eta beste urte bi luzatu ahal izango da, urterik urtera.

### **9. KONTRATUA AMAITZEA**

Kontratua automatikoki amaituta geratuko da kontratatatu den epea amaitzean eta ezin izango da luzatu gehiago.

### **10. MARTXAN JARTZEKO EPEA**

Zerbitzua osorik martxan jartzeko epea ezin izango da 40 egun baino luzeagoa izan, esleipena jakinarazten den egunetik hasita. Lizitatuzaileak konpromisoa hartuko du **maiatzaren 9ko Telekomunikazioen 9/2014 Lege Orokorrak** ezarritako gehieneko epeak betetzeko, baita CMTk (Telekomunikazioen Merkatuko Batzordeak) jarritako agindu eta gomendioak eta indarreko araudiak ezarritakoa.



## 11. ESLEIPENA EGITEKO BALORAZIO IRIZPIDEAK

Balorazio irizpideak kontzeptu hauetan banatzen dira:

- Hileko kuota finkoa (tarifa finkoa): 50 puntu
- Alta-kuotak eta unitate-prezioak 5 puntu

Eskaini beharreko hobekuntzak:

- Cloud plataformak, Office 365 motakoak edo antzekoen bidezko zerbitzuak 15 puntu
- Ekipamenduaren hornidura eta/edo berritzea 15 puntu
- Wifi ziurren irtenbideak informazioaren transmisioarekin 5 puntu
- Operadore mailako zentralita zerbitzuekin erlazionatutako hobekuntzak 5 puntu
- Arazorik balego komunikazioen operatibitatea ziurtatzeko zerbitzuak 3 puntu
- Gailu mugikorrek urrunetik kudeatzea 2 puntu

### 11.1. Prezioen eskaintza 55 puntu.

#### 11.1.1. Hileko kuota finkoa (tarifa finkoa): (50 puntu).

**Hileko kuota finkoa** edo Tarifa Finkoa ezartzen da . Hemen sartzen dira eskaini beharreko telekomunikazio zerbitzutik eratorritako gastu guztiak, kuota finkoak, trafikoa, mantentzea, etab.

III. eranskinean 2015ean Bermeoko Udaleko trafiko Patroian kontsumoaren datu zehatzak jasotzen dira eta lizitatzailleei balioko diete azterketaren oinarri moduan aipatutako kuota finkatzeko.

Aipatutako Hileko Kuota Finkoak barne hartzen dituen gehieneko kontsumoak eranskin horretan jasotakoak dira.

Aipatutako eranskinean adierazitako gehieneko baloreen gainetik eskaintzan finkatutako banakako prezioen arabera fakturatuko da, ondoko ataleko taulen arabera.

Egin beharreko eskaintza:

